

SEXU-JAZARPENAREN, SEXUAGATIKO JAZARPENAREN ETA LAN- EREMUAN SEXU-ASKATASUNAREN NAHIZ OSOTASUN MORALAREN AURKAKO BESTE EDOZEIN JARREREN AURREAN TOLERANTZIARIK EZ IZATEKO KONPROMEZUA

Konpromezu honen bidez, Donostia International Physics Center Fundazioak adierazten du zero tolerantzia duela erakunde osoan sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta lan-eremuan sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako beste jarrera batzuk batera gertatzen direnean. Era berean, Donostia International Physics Center Fundazioak konpromezu esplizitu eta irmoa hartzen du erakundearen barruan ez onartzeko sexu-joera, genero-identitate eta/edo genero-adierazpenagatiko jazarpentzat hartzen den inolako bereizkeria-jarduerarik, eta debekatzen du era horretako edozein jokabide.

Donostia International Physics Center Fundazioak berariaz azpimarratu nahi du sexu-jazarpenaren, sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren eta sexu-askatasunaren nahiz osotasun moralaren aurkako beste edozein jokabideren aurrean prebentzio- eta jarduteko konpromezua, bere adierazpen guztietan.

Konpromezu horren berri emango zaie Fundazioan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei, bai bertako langileei, bai beste enpresa edo erakunde batzuetatik datozen profesionali. Halaber, jakinarazpena egingo zaie Donostia International Physics Center Fundazioari zerbitzuak ematen dizkieten edo harekin lankidetzan aritzen diren pertsonari, hala nola prestakuntza-prozesuan daudenei, praktikak egiten ari direnei, boluntarioei eta erakundearekin lotura duten langile autonomoei. Era berean, Donostia International Physics Center Fundazioak bere gain hartzen du, DIPCen lan egin lezaketen langile guztiek —haien enpresa edo erakundea edozein dela ere—, sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena, eta lan-eremuan sexu-askatasunaren nahiz osotasun moralaren aurkako beste edozein jokabide prebenitu eta horiei aurre egiteko protokoloa ezagutu eta zorrotz bete behar dutela jakinaraztea.

Donostia International Physics Center Fundazioak aipatutako protokoloan jasotako neurriak bere gain hartzean, publikoki adierazten eta iragartzen du **jarrera proaktiboa** hartzeko borondatea duela: **bai prebentzioaren** arloan —erakundeak onartzen ez dituen portaeren inguruan sentibilizatzea eta informatzea—, **bai jardunbide egokiak hedatzearen** arloan, **bai horren inguruan** planteatzen daitezkeen kexak eta salaketak kudeatzeko **eta kasu bakoitza ebazteko behar diren neurri guztiak ezartzearen** arloan.

Donostian (Gipuzkoa), 2025eko uztailaren 21ean



Ricardo Díez Muiño
Zuzendaria

ERREFERENTZIAKO ARAUDI NAGUSIA

Estatuko araudia

- **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa**, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra bermatzeko.
- **12/2022 Legea, uztailaren 12koa**, tratu-berdintasunerakoa eta diskriminaziorik ezaren aldekoa.
- **10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa**, sexu-askatasunaren berme integralarena.
- **4/2023 Legea, otsailaren 28koa**, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko.
- **1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa**, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ez egiteko neurrien multzo planifikatua garatzen duena.
- **31/1995 Legea, azaroaren 8koa**, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- **10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa**, zigor kodeari buruzkoa.
- **2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa**, Langileen Estatutuaren Legearen testu betegina onartzen duena.
- **2/2023 Legea, otsailaren 20koa**, arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen duena.

EAEko araudia

- **1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa**, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu betegina onartzen duena.
- **4/2024 Legea, otsailaren 15koa**, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzea eta haien eskubideak aitortzea.